

*Joxepa Goikoetxea Elizalde*  
*Donostia, Gipuzkoa (1923-2008)*

Aurkibidea

## Biografia

Altzakoa. Antzinako bizimoduaren inguruko kontu ugari kontatzen ditu. Pilotarako zaletasun handia izan du beti eta pilotan ere jokatzen zuen, bai eskuz eta baita palaz ere. Zerbitzari lanetan ibilitakoa. Eliza zaintzen ere lan asko egin da.

## Zintak

### DON-145

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sanchez, Jon
- **Data:** 2007-09-01
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** CD
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

# Pasarteak

## 1. Pianorako zaletasuna

- **Erref:** DON-145/002
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:00:53. **Bukatu:** 00:02:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Musika

### Laburpena:

<p>Aitaren afizioa pianorako. Berezkua zuen. Solfeoa ikasita, nahikoa. Sakristau moduan jotzen zuten pianoa. Bi anaiak ere trebezia zuten. Bat bankuan hasi zen lanean; haren ibilbidea.</p>

## 2. Anaia biak pilotariak

- **Erref:** DON-145/003
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:02:48. **Bukatu:** 00:05:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

<p>Pilotariak ziren bere bi anaia. Bat aurrelaria eta bestea atzelaria. Zaharrena Nafarroan ibili zen asko. Txikito de Iraeta zarautzarrarekin kontra jokatu zuen anaiak. Bera ere ibilia da pilotan jokatzeko, eskuz baino gehiago palaz.</p>

## 3. Martilunen zerbitzari

- **Erref:** DON-145/004
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:05:19. **Bukatu:** 00:07:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Lanbideak » Neskameak

### Laburpena:

<p>Neska koskorra zela lanean hasi zen. Martilunen zerbitzari ibili zen. Argazki batzuri buruzko aipamena. Arantzazuko erromesaldi bateko argazkia ere aipatzen du. Don Corneliori buruzko kontuak; etxetik gertu bizi zen.</p>

## 4. Eliza garbitzen

- **Erref:** DON-145/007
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:08:45. **Bukatu:** 00:09:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

**Laburpena:**

<p>Elizan ere egiten zuen lana: garbitu, loreak jarri... izeba bat aritzen zen han. Gero bera hasi zen. Berorika hitz egiten zion izebari.</p>

**5. Martilunen zerbitzari II**

- **Erref:** DON-145/009
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:13:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Neskameak

**Laburpena:**

<p>Beti lanean ibili da. Martilunen, zerbitzari. Kanposantura joaten ziren jolastera. Soldaduak ibiltzen ziren. Martilunera joaten zen soldadu baten kontuak: beti zaldi diferentearekin joaten zen.</p>

**6. Dantzan eta melokotoiak lapurtzen**

- **Erref:** DON-145/010
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:13:03. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

**Laburpena:**

<p>San Markon dantzan, soltean. Altzan ere ttunttuna jotzen zuten. Lagun batekin Martutenera joan zen behin, melokotoiak lapurtzera.</p>

**7. Altzako festak**

- **Erref:** DON-145/012
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:14:49. **Bukatu:** 00:16:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

**Laburpena:**

<p>Altzako festak. Arina zen dantzan, soltean. Dantza lotuan ibiltzeagatik amak etxera eraman zuen. Festetan zer izaten zen. Altza oso handia zen. Nondik nora iristen zen esaten du.</p>

**8. Lotsagabe samarra zen umetan**

- **Erref:** DON-145/014

- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:16:10. **Bukatu:** 00:18:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

**Laburpena:**

<p>Lotsagabe samarra zen umetan. Amari txanpon batzuk lapurtu zizkion, festetarako. Hamar zentimokoarekin joan zen tabernara. Behin izebari eman zion erantzuna.</p>

## 9. Eskola kontuak

- **Erref:** DON-145/015
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:18:29. **Bukatu:** 00:22:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena:**

<p>Eskola kontuak. Maria Zarauzekin ibili zen lehenengo. Apaizaren kontuak. Gero Herreran ibili zen eskolan, Peruene baserrian. Josten ikasten ere ibili zen, Miracruz kalean, baina ez zuen segitu. Puntua egitea bai, gustatzen zaio. Ama 36 urterekin alargundu zen, eta sei senide ziren. Kaskarrekoa erraz ematen zuen amak.</p>

## 10. Martilunen zerbitzari III

- **Erref:** DON-145/017
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:22:45. **Bukatu:** 00:24:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Lanbideak » Neskameak

**Laburpena:**

<p>Ahizpa Martilunen ibiltzen zen bera baino lehenago. Propinak kaxoian uzten zituzten. Atotxako frantziskotarrengana joaten zen konfesatzera. Senarra Martilunen ezagutu zuen; turroia oparitzen zion.</p>

## 11. Ilaran, ogia erosteko

- **Erref:** DON-145/018
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:24:58. **Bukatu:** 00:27:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

<p>Gerra garaian Pasai Antxora joaten zen ogi bila. Ilaran egoten zen, Berrondo okindegian, errazionamendurako. Andre batek berarentzat ere ogiak hartzeko esan zion. Ez zuen esandakoa bete.</p>

**12. Eliza azpian ezkutatuta**

- **Erref:** DON-145/020
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:27:14. **Bukatu:** 00:28:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena:**

<p>Gerra garaian eliza azpian ezkutatu zen behin. San Markora bonbak botatzen zituen Cervera itsasontziak.</p>

**13. Sebastian lehengusuaren ibilerak, gerra garaian**

- **Erref:** DON-145/022
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:28:18. **Bukatu:** 00:30:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena:**

<p>Sebastian Elizalde lehengusua nazionalista zen. Don Felix parrokoa ezkutatu egin zuen hark, karlista zelako eta harrapatuz gero garbitu egingo zutelako. Sebastian kartzelara eraman zuten, eta heriotza zigorrera kondenatu zuen. Apaizarengana sinadura bila joan zen Sebastianen emaztea, eta hark sinadura ukatu. Hala ere, ez zuten hil.</p>

**14. Soldaduentzat puntua egiten**

- **Erref:** DON-145/025
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:32:36. **Bukatu:** 00:34:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

**Laburpena:**

<p>Gerra garaian "pasamonta&ntilde;as" eta "manoplak" egiten zituen soldaduentzat, baita jertseak ere. Loiolako kuartelera bidaltzen zituzten. 1923an jaioa da. 28 urterekin ezkondu zen.</p>

**15. Goikoetxea jaiotetxea**

- **Erref:** DON-145/026
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:34:18. **Bukatu:** 00:37:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

**Laburpena:**

<p>Bere jaiotetxea, Goikoetxea, nolakoa zen kontatzen du. Altzako frontoia. Teilatua hautsi egiten zuten pilotakadek, eta amak bi solairu gehiago atera zizkion etxeari. Anaia Intxaurrondora ezkondu zen. Beste anaia bat Errenteriara. Ahizpa etxera ezkondu zen. Bera nora ezkondu zen. Ez daki amak dirua nondik atera zuen horrelako obra egiteko, baina zorrik ez zien utzi.</p>

**16. Mezetara eta gero eskolara; etxeko zereginak**

- **Erref:** DON-145/028
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:38:05. **Bukatu:** 00:42:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

**Laburpena:**

<p>Ama zazpitako mezetara joaten zen egunero, eta beraiek orduerdi geroago. Ramonak ematen zien abixua. Gero beraiek eskolara eta ama etxeko lanak egitera. Beraiek ere garbitzen zuten etxea; ahizpa motelagoa zen, eta denbora gehiago behar zuen. Izebari ere laguntzen zion. "Atsolarra" merienda egiten zuten auzoan umeren bat jaiotzen zenean, eta beste batzuek etxea dotoreago zutela esaten zion handik bueltan. Lan egin bai, baina sosik ez zuen ikusten, Martilunen ere berandu arte lanean; orduan ama ez zen kexatzen.</p>

**17. Amarako feriara joan, eta diru dena gastatu**

- **Erref:** DON-145/029
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:42:45. **Bukatu:** 00:44:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena:**

<p>Lagun batekin Amarara joan, eta diru dena gastatu zuten ferian. Topora joan, eta ez zitzaien dirua iristen. Mutil ezagun bat zegoen han, baina ez zioten hari eskatu nahi; beti inguruan ibiltzen zuen hura.</p>

**18. Altzan, denda gutxi**

- **Erref:** DON-145/030
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:44:25. **Bukatu:** 00:47:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

**Laburpena:**

<p>Altzan ez zen dendarik. Estanko bat zegoen udaletxe ondoan. Maldan behera, Manuelaren denda zegoen. Eugenio Mercaderkoa tratantea zen, eta bastoiarekin zirikatzen zuen. Fermin bizarginak Batzokian jarri zuen negozioa.</p>

**19. Aita, Altzako idazkaria**

- **Erref:** DON-145/033
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:48:42. **Bukatu:** 00:50:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Udal langileak

**Laburpena:**

<p>Ez zuen aita ezagutu. Lau urte zituenean hil zen. Aita idazkaria zen Altzako Udalean. Amak pentsioa kobratzen zuen, eta ahizpa mojak gero. Herriko parrokoa, medikua eta idazkaria Martilunera joaten ziren hamaiketako egitera. Aitak bera eramaten ei zuen eskutik helduta.</p>

**20. Gaztetako ibilerak**

- **Erref:** DON-145/039
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:54:31. **Bukatu:** 00:56:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkongabeak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena:**

<p>Gaztetan ez ziren urrutira joaten. Ubara joaten zirenean, Otxokira joaten ziren meriendatzera. San Markora oinez joan, eta dantza egiten zuten, soltean. Migel izeneko mutil baten kontuak; ezkontzeko bezperan bikoteak aurretik haur bat izan zuela jakin zuen.</p>

**21. Zubietara santioetan, zapata berriekin**

- **Erref:** DON-145/041
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:58:10. **Bukatu:** 01:01:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

**Laburpena:**

Donostiara ez ziren joaten, enkargutara ez bazen. Izeba Ramonitak egin zizkien soineko batzuk. Behin zapata politak erosi zituen. Zortzi egunerako Zubietara joaten zen santioetan. Zapatek min egin zioten.

---

Goikoetxea Elizalde, Joxepa | ahotsak.eus Orr.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-29

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com